









R. -

R. C.





DEPARTMENT OF THE ARMY  
OFFICE OF THE ADJUTANT GENERAL

REGIMENTAL HEADQUARTERS  
100th Cavalry Regiment  
Fort Benning, Georgia

OFFICIAL RECORD

FOR THE YEAR 1918

PREPARED BY THE ADJUTANT GENERAL

FOR THE REGIMENTAL HEADQUARTERS

AND FOR THE OFFICE OF THE ADJUTANT GENERAL

AT FORT BENNING, GEORGIA



Las buenas nuevas del Evangelio  
de y reyles para escribir, leer  
y hablar bien, el Vocabulario  
Paseo de la Cruz 2131

Vocablo 91

Vocablo 91

(Estudio en la B. de la  
Franciscana de San Pedro)  
Elogio - Mr. de  
de San Pedro, Rodriguez  
Tomas y otros

Vocablo de la Cruz

un ejemplo de un

obra ubicada en

por el Sr. de la Cruz

En la Cruz de la Cruz

con un ejemplo de la Cruz  
Text. de la Cruz de la Cruz  
Vocablo

EUSQUERAREN

BERRI ONAC:

ETA ONDO ESCRIBITCECO,  
ondo iracurteco, ta ondo itzegui-  
teco Erreglac:

CURA JAUN,

TA ESCOLA MAISU CELOSOAI  
Jesuf-en Compañiaco Aita Agustín Car-  
daberaz ec esqueñtcen, ta dedicatcen  
dieztcenac.

1761.



Urtean.

BEAR DAN BEZALA.

Iruñean Libruguille ANTONIO CASTI-  
LLA-ren echean.





IRACURLEARI

# BERRI

ONAC.



RROMAN, ERRIA-  
ren errenta andi, eta  
fama are andiagoa-  
requin , ondo itze-  
guiten icaiteco , edo  
Eloquenciaren Esco-  
lac aurreneco idiqui  
cituenac , MARCO  
FABIO QUINTI-  
LIANO izanzan. Au

Autore andi ascoc diotenéz, jaiotzaz, edo be-

A 2

re

4  
jatorriz gure Españaco Semea omenzan,  
Escola oiec, conseju andiaz, ta beratiaz. Er-  
romac paratu cituen, gazte alperrac galdu,  
ta munduaren desonragarri izangociranac,  
ondo aci, ta Erromaren onragarri izancite-  
cen. Escola orietan oguei urtetan Maisu  
onec Erretorica gende gazteai chit ederqui  
eracutficien: eta Icasle, edo Dicipulo seña-  
latu alco ateracituen: eta besteen artean Pli-  
nio bigarren-, edo gazteena bat izanzan. Ci-  
ceron-en urrengoa **QUINTILIANO** esan,  
edo contactu oida: eta onec, arc baño ere  
obeto gauzaren batzuec beguiratu, ta len  
baño molde obean, ta arguiroago aguertu,  
edo utcicituen.

Oguei urteac aimbeste genderi eracasten  
igaro-, eta Marcelo Victorio bere adisquide  
laxtanaren erreguz, onen Semearenzat,  
amabi Libru, munduan chit estimatuac, orañ  
**LETRA EDERRAC** deriztenac ondo icasi-  
ten asitceco, eguincituen. Orietan Maisu agu-  
do, ta suave paregabe onec, anciñaco Au-  
tore Erretorico, Poeta, ta beste guizon  
andi lenagocogucietan icusi, ta icasi zuena,  
iñorc bestec ez bezala, moldaturic emanci-  
gun: eta gazte: bat aurtafunetic nola ondo  
aci beardan, A, B, C-tic asi, ta guizon pre-  
tu, chit jaquinu, edo biribill eguin attera-  
ño,

ño, LETRA EDER gucien icasteco bide,  
ta lecioac beguien aurrean claro isintcenditu.

Orañ bada , Iracurle Cristava : baldiri  
Quintilianoc , Marcelo bere adisquide cu-  
tunagatic , ta GETA aren semea mundura-  
co ondo acitceagatic , amabi Libru , aim-  
beste erregla , ta lecio banaca arguituaz are-  
ra bacituen : guc gure Jaungoico gucien Ai-  
ta maiteagatic , ta animen salvacioagatic cet  
ezdegu eguin bear ? Ah ! Batetic beftera as-  
co dijoa ! Gure intencioaren aldean arenac  
cer icusi erzuen. Arc hurreraco , guc ceru-  
raco : arc guiza arteraco , guc Aingueru  
arteraco umeac ondo acitcea naidegu : eta  
gucia , ez gureztat , baicic Jaincoaran glo-  
riaraco izandedin. Baña ori , edo aldeguna  
eguiteco , goragotic edo anciñagotic asi , ta ur  
garbia bere jatorrizco iturritic artu bearde-  
gu : ta Eufcararen berri beste izqueratatic ne-  
labait atera beardegu.

#### I. §.

#### BESTE IZCUNDEEN ALDEAN EUSCARA.

**N**Oiz , ta nondic , edo nola gure Eufque-  
ra onoz etorrizan norc daqui ? Ce-  
rutic , edo Jaungoicoagandic , guizonen af-  
macio gabe , orien gañeco gauza bezala  
etor-

6  
 etorrizala Eufcarac berac bere era eder, ta  
 armonia paregabean ondo seguru elaten,  
 edo adierazotcendu. Beste Izcunde, edo  
 Lengoageac, norc daqui nastu, ta batera, ta  
 bestera nola ibillidiran: Eufquera Jaincoac  
 nai, ta menditarte oietan, beti nalgabe, beti  
 garbi, beti seguru beregan gorde izanduda.  
 Chanchetan efan oida, edo Euscaldunac  
 efan oidute, Jaungoicoac Paradisuan Adan  
 gure Aitari eufqueraz: Adan non ceras  
 efanciola. Eufquera Jaincoaren gauza be-  
 zala, araco, ta edoceñ lecutaraco diña ba-  
 zan, Jaincoac ala nai izan balu. Baña gauza  
 ciertoa da, Jaungoicoaren izqueta Paradi-  
 suan, ta guero ere, Hebreoz izanduzala. Fe-  
 deac Escritura sagraduan estatendigu, Mun-  
 duaren asieran, guizon gucien Izcunde, ta  
 Lenguagea bat, eta bacarra zala: „Erat au-  
 tem terra labij unius, & sermonum eo-  
 rundem. Gen. 11. „Gure Aita Cornelio  
 a Lapidec, Eleizaco Doctore, ta Interpreté  
 fantuaquin contra atera, ta dió, Lengoage,  
 edo Izcunde ori Hebreoazala, ta onec be-  
 rac milla ta zortci eun, ta gueiago urte ba-  
 rre mundu gucian irauñdu, ta fervituz-  
 zuen, aurrentic Babel-co Torretzarra asi  
 arteraño: orduan Lengoageen naspilla izan-  
 duzan: ta arrezquero ere nalgabeco Hebreo  
 gar-

garbia usatzen zala, dió gure Cornelioc. 7

Heber Jaungoicoaren guizon, ta Abraan santuaren Afaba erena, edo irigarren Aitonac, Abraan, Ifac, Jacob, ta bere ondorengoquin, Jaincoaren Fede, ta Paradifucó Lengoage santua gordezuten. „ Heber „ vir sanctus...á quo orti, & dicti sunt Hebraei, qui primigeniam Paradisi linguam „ Hebraeam cum vero Dei cultu soli retinuerunt. Cornel. in c. 16. Gen. „ Eta au berau lecu ascotan dió. Babel-co Torreá asi arteraño Lengoage Hebreo bacarra, ta guciac aditcentzutena zan : eta ango bearguilleai gogoa quentceco Jaincoac izquera berriac emanciezten : batari Griegoa, besteari Latina, ta orrela : guztitan berroquei, ta amabosteraño, dió gure Cornelioc, ta orrequin guciac nastu, elcar ecin aditu, eta guizonac munduan banatuciran : oiec berroquei ta amabost familia ciran. Corn. in c. 11,

Anciñaco Izquera zarren artean, gucien lenen, aurreneco Ama, ta asiera bezala, Hebreoa beti contatcenda, ta onegandic Syriaça, Caldeoa, ta Arabigoa, sortu, ta jaiocirala: Latiñetic Italiaco, Ungriaco, Franciaco, ta Españaçoa, eta besteac orrela: „ Hebraica matrix, & genitrix, & Syriacæ, Chaldaicæ, Arabicæ: Latina Italicæ, Valachi-

„ Cæ



8  
,, cæ Gallicæ , Hispanicæ , &c. Corn. hic. Baña Eufquerac , Gaztélaniac bezala , aidentafun orren urcoa , nola dan umeaquin amarena , ta Latiñaren ume nola datequean , edo nondic batac beftearen antza duen , probatcea , orren erraz ezta.

Dana dala , anciñatic orañ bezala Griego , ta Latiña beti estimatuenac izandudira : eta baldin Latiñac , eta Griegoac berac itz , boz , edo verba alco Eufcaratic artuac badituzte , ondo claru Aita Larramendic eracustenduen bezala , Eufquera aiequin batean , edo lenago zan feñalea , eta Izcunde lenen , edo aurrenecoetatic bat Eufcara zala. Nola nai , cierto da , Latin , ta Griegoac batac beftea apañtceco elcarri elcua eman , ta lagundudiotela , ta Lengoage gucien artean aurrécua beti artu , ta eramandutela. Guizon jaquinſuen artean beti ibiltcean oien zori ona egonda. Munduaren partetic aguirienetan jaquindan gueiena , Griegoz , ta Latinez eſcritu izanda : eta ambeſte Libru ondo eſcrititceco , ta oriec bear bezala iracurtceco , eſan , edo itzeguiteco bietan Erregla on alco emandira.

Anciñaco Filoſofo lenenac , Erretori-coac , ta are gueiago dana , Eleizaguizonic andienac , Maifuric jaquinſuenac , Espiritu San-

Santuaren arguiaz gidatua, beren ceruco  
 Libruac Lenguage bietan escriptucituzten:  
 ala Ignacioc, Policarpoc, Justinoc, Cle-  
 mentec, Tertuliano, Origenes, Cipriano,  
 Lactancioc, ta beste Escritore fantuac. Elei-  
 zaco lau Dotore Griego, Atanasio, Basi-  
 lio, Gregorio Nacienceno, ta Crisostomoc,  
 nola lau Latino, Ambrosio, Geronimo,  
 Agustino, ta Gregorio andiac, ta oien on-  
 dorengo guciac. Au dudaric gabe dicha  
 andia da.

Izcunde estimatu oiec biac ere beren ore-  
 ñac, edo tachac bacituzten len; baña gu-  
 ro, ascojaquiñen artean oidana, egunoro,  
 ta obeto poliquitu, ta apañduaz biac joan-  
 dira. Orañ dacuscuna da, Jaquinsuen, ta  
 Jaquinzaleen Izquera, edo Lengoageac La-  
 tiña, ta Griegoa dirala: ta Latinaren estima-  
 cioa are andiago da, ceren Eleizaren Izque-  
 ra santa dan, eta gure Fedeco Libru sagradu  
 guciac Latinez daucatcigun.

Gure Eufquerac bazter oietan orrelaco  
 Guizafeme andien patu onic izan eztu. Baña  
 Latin, ta Griegoac ascojaquiñen dicha, ta  
 gloria ori izan badute: bere modura mar-  
 villa chiquiago ezta, baicic miragarrizco  
 prodigio andiago, nola Eufquera foll foll,  
 bacarric, edo nic eztaquit nola, biciric aim-  
 bes.

beste seculetan egondan, ta dagoen: añ borez,  
 ta beregan, añ argui ta garbi, bere erio, ta are-  
 rio gucien damu gorri gaitoan badere. Ale-  
 re, alco eguequi, Eusquera galduda. Baña ori  
 ezta Euscararen, ezpada Euscaldunen delon-  
 ra: bada oiec poliquitu, apañdu, ta edertu  
 beartean, lotfaric gabe berac beren naguita-  
 funez itxustu, larrutu, ta deseguin izanduteq.

Baña, gure Pobrecho on ascoren animac  
 salvatceco, Euscarac burua jasotcea, Jain-  
 coac naidu: gure Baserrietan gende prestuac  
 dirauten artean, Euscarac iraungodu. Eñan  
 gidana: oiei lepoa ebaqui, edo bicia quen-  
 du gabe, Euscara ecin utci, edo quendudi-  
 teque. Jaungoicoaren vorondate jaquiña  
 da, areñ Fede, ta Legueco Mysterio escuta-  
 tu, ta Doctrina salvatceco beardana, Sacer-  
 dote Jaunen Ministerio sagraduetan, Euf-  
 queraz baitie emen eguin, ta eñan bear ez-  
 dala. Ta lengo arzaquiatic orañ edolaric ez-  
 dute ascoc: bada AITA MANUEL LAR-  
 RAMENDIC, neque gogor, ta estudio,  
 eñan albaño andiagorequin, ecin izango,  
 ta ecin eguingozana, bere Artean eguiñic,  
 ecinac eta nequeac lazqui garaitucituen, ta  
 ori, ta bere Iztegui, edo Diccionarioa, Mai-  
 suac bezala emandizquigu.

## EUSQUERAREN IZQUERAC,

*edo Dialectoac.*

**I**Tsu itsuan ascoc esanoidu, Eusquera asco dirala, edo erri bacoitcean bere Euscara dala; baña cer dioten ezdaquite. Ezta ori eguia: Eusquera bat da. Euscara bat onetan, eguia da, Dialecto, edo izquierda asco dirala. Autore graveetan ascotan iracurten det, Griego an bost Dialecto ciradela: Aticoa, Aelicoa, Doricoa, Jonicoa, ta Comuna, edo guciena. Onela bada Francian, Nafarroan, Bizcaian, Araban, ta Guipuzcoan, beren Izquerac, bacoitza bere erara dira: ta ori gauza berria ezta.

Onen gañean ere A. Larramendic Aratean, ta Izteguien gucia, edo gueiēna bectec ez bezala, Erregla seguruaquin eracustendu, baldin Euscaldun jaquinzaleric bada, eta oieci Jaincoaren gloriari, ta animen onari beguiratuaz, orietan dacartciēn avisoac, ondo icusteco pena, edo neque puscabat artceco gogoa badute: baña lastima da: Libruac iracurten, ta mesede, edo oneguina ezagutu, ta estimatcen baño, esquer gaiftoac ematen errazago da. Nere animaco  
fen-

sentimentu , edo mña da , etsaiac alde onetatic animetan eguitenduen caltea , ta neque güchi bat ez lau egunean artecagatic , naguitafunez Libru onac utci , ta alco beren jaquineztafun , edo ignorancia itluan betieo guetatcea. ,, Noiz artean, David fan- ,, tuatequin esandezquet, noiz artean, gui- ,, zafemeac orren biotz pisua izangodezute! ,, Cergatic vanidade , edo utfa amatcen , ta ,, guezurra billatcendézute! Pfal.4. ,,

Dialesto , edo Itzera oien gañean foseguz pensatcenduenac , gauza miragarri , ta ecin ucatucodan bat arquitecodu , eta da, Euscaldun bacoizac bere Izquera ceñ era; ta armonia ederrean gordetcen duen , edo dezaquean. Nafarroan len , ta orañ bertaco , ta are gueiago Franciaco Libruen socortuaz ; nolerebait errazago beren Izquera gorde izanda ; baña orrelaco lagun gabe, alde oietan , eta Bizcaian , beren Izqueraan ceñ ederqui iraunduten icusteac , chit arritecñ nau , ta edoceñ admiradezaque : eta in ravilla au ondo icusi , enzun , ta adituga- bē , ecin ala fede finistu liteque.

Aimbeste milla anima , edo guizon , ta andrerequin igaroco oguei , ta aimbest urrectan Provincia oietan Misioetan jardun bear izandet : eta egunoro , ta gueiago admira-

13

miratu izan nau gucietaeo , ta ez guchiago  
Bizcaico itzeguiteco era , ta armoniac. Bes-  
teac beceñ ondo , ta gauzaren batzuetan , be-  
arbada obeto Izqueraren legueac an gorde-  
tzen dituzte. Gucioc Señorico. Nafarroa-  
co , ta emengoa ondo baguenequi , añ  
ederqui batean , nola bestean , ta iruteran ,  
boz , itz edo verbaz ufatu , ta jocatuceo  
guenduque.

Gauza bi alere onen gañean cietroac dira.  
Bata Bizcaitarrac berac , ascoc beñizat gu-  
re Dialectoan , berenean baño predicatcea  
naiagodutela : eta Bizcaico Predicadore ascó  
gurean predicatcera oitu , edo eguindirala.  
Bestea da , an , ta emen ere , nic ezdaquit  
nola , baño guizon gueienac moldecaiz , ta  
gogorquiago , eta andreac berenez poliqui ,  
ta emequiago itzeguiten dutela. Baña orre-  
gatic , ya dacus edocēnec , ala guizafeme,  
nola emacumeetan , Eusquera betibat , eta  
berbera dala. Guisa onetan , edo bestean  
itzeguitea , ferian , edo dendan erosten dan  
gauza ezta : Bacoitzac bere Dialecto , edo  
Izquerari jarraitu ondo : Oitura , Ufu , ta  
Costumbrea ala da , ta aurrera ere ala  
izangoda.

III. §.

## ONDO ITZEGUITEEO , TA ESCRIBITCECO

*Molde, edo Artea.*

**E** Scribitcen aſi ðaño lénago mundnati itzeguitenzan. Baña ondo itzeguitea, ta ondo eſcribitea gucia bat , edo berberá deritzala , dio Quintilianoc : „ Mihi unum, „ atque idem videtur benè dicere , ac benè „ ſcribere. L. 12. c. 10. „ Onetaraco lénengo Artea , edo Erreglac emancituena , Elocuenciaren Aita , edo ederqui itzeguiteco Moldea aterazuéna , Iſocrates izan omenzan. Quint. L. 2. c. 15.

Gramatica, edo Molde au da: „ Ars emendatè loquendi , & ſcribendi. „ Eſan naidus ſoleciſimo , barbariſimo , uts , edo falta , guezur , ta oquer gabe , zucen , ta berén lecuani ondo itzac eſatea , edo eſcribitea : eta onetan Iſocrates chit argui , zorrotz , ta diligentea izan omenzan. Latinez itzeguitea , ta Arte , edo Gramaticaz , edo onen erreglaz batean itzeguitea , ezta gucia bat , dio Quintilianoc : „ Aliud eſſe Latinè , aliud Grammaticè loqui. lib. 1. cap. 6. „ Ori berá orañ : Erdaraz , edo Eulqueraz itzeguitea , eta Arte , edo Gramaticaco erreglaquin ondo

do itzeguitea, eta gucia bat : eta bat, eta berbera, da atzazoa.

Ondo, ta bear bezala esribitcen, ta itzeguiten icasi dutenac, Isocrates baten, ta guero Ciceton, ta Quintiliano ren aleguin bici, ta berezquirozco aien diligenciai asco zordie : on erreglaquin eracusteco, A. B. C. edo Alfabetoco letra guciac banaca icusi, beguiratu, ta esaminatu cituzten. Berealacoan, edo berangoan gucia idoro etzuten, ta utlac beretcea, ta sobrac quentcea asco costacitzaieñ : Griego, ta Latina ondo jarrei, ta apañteco edergarri asco billatu, ta beren aleguin gucia egunzuten.

Guero, edo onontzago, orasi milla ta laureun urte bezala Eleizaco Eguzqui argui eder San Agustin bat oneraco bere lecio, ta erreglac, Gramaticaco Libru bat elcribitu, ta gazteai A. B. C-tic asi ta eracusten jarrian. Maisuen Maisu andi San Agustin bat onezaz dedianatu erzan, ta onra anditzac artuzuen neque au, Jaincoaren gloriaraco, ta animen oneraco. Cergatic bada, Eufaldunac orrezaz dedianatu beardute ? Onetan, neque gogorraz, Aita Larramendi batet jardunuen, ta berac dion bezala, ez bacarfic gure Provincia guciz Noblearen, ezpada Jaincoaren gloria gatic, ta animen salvacio-



vacioagatic , ta ori-Elizaco Eufcaldun Maifü, Confelore, ta Predicadoreetan obeto fe-guratu , ta errazago eguiteco. Au bere ma-rabillazco Gramatican eguinzuen : obra on andia au cerzaz pagaticodiogu ?

Bizcaian , baita emen gure artean ere , Sa-cerdote Jaun alco icusi ditur Efcioletan obra on ori celo, ta arreta andiaz eguiten : obra obeagoric Errienzat ecin , ala fede umeac ondo azitcea baño , eguindezaquee. Argat-ic Maifü , ta Gurafo umeai eracatsi beardienac , ori ondo eguiteco Erreglac bearrago dituzte. Seme , ta alabac chiquitatic Efcolan Erdaraz , ta Eufcaraz , edo guztitara oitu beardira , ta arrazoi gabeco lotfa beltz gaiftoa pifatu , ta quentcera. Bestela cer lotfa gaifto itfufiagoric , Eufcaldun gal-tzadun , edo guizon eguin bat , lau erren-gloi Eufqueraz ecin iracurriric , ez atcera, ta ez aurrera lotu , ta icuftea baño ? Ta ori gucia cergatic ? An aifa , ta erraz lau egu-nean Libru bat iracurtcen ez equin , edo jar-duteagatic. Lau eguneco egercicio pifca ba-tequin seguru Erdaraz bezala , edo aifago Eufcaraz iracurtcera eguingocera : eguin , ta iracurri , ta nequeric ; ta lotfaric eztago.

Emen Gurafo , ta Maifüac falta andibat epremediatu beardute , ta gure Eufquerari,  
orañ-

orañdaño baño mesedé guelago eguin. Gendeen artean beste Lengnageric Eufquera baño dicha gabeagoric ezta icusi, ta gure ja-torrizco, edo jaiotzaco Izquera ezbaliz bezala, ta Eufcaraz itzeguitea, peccaturic aundiena baliz bezala, gñiza artenic quendu, ta kurpean ondatu naidute, ta Escolétan fortija, edo siñaleaquia, azoto ta castiguaquin eragortinaidute. Cer eraqueria itisnagoric au baño? Eufcaldun prestuac, ez arren orrelaco ofenaric zuen lenengo, ta beñ bearduzuten Eufquerari eguin. Zuen juicioa nondá? Eufcalerrietan nola gauza onic izangoda? Araban nembillen batean, ango adisquide, ta Erregueren Guardiataco Capitan baliente batq beñ efancidani Aita, nola Eufcalerrietan, umecn aciéra ona, ta beardan Dotrimanic izangoda, baldin Eufquera ondaceço aleguin guciac oguiten badira, ta gure mañilcho, edo aurrai bildur, ta azoteaquin, Eufqueraz itzeguitea eragortzen bazaie? Oiec berac guero edo Eleizaguizom, edo Eghajaunac izan beardute. Eta Guraso, edo Curac diranean, nola ongui premia dan bezala, beren Eche, edo Ergoleneran (Erri chiquia onela Araban deicendiere). Dotrina eracatsi, ta confesaturadute? Nola beren familietaco artu emanac, ta beste bears

B

diran :

dirari gauzac ondo aditu, ta zucenduto dirazte. Icasten deguna, da: gazteac Latin gramatica icasten dutenean, naiz Gaztelaniaz, naiz Francesez, naiz Eusqueraz itz eguiten dute, ta ori eragozten ezdiere. Gramaticaco Mañu famatu bat gure egunean izanzan. Latin gauzac ere Euscaraz eracusten cietena: ta Frances Euscaldunai Gramaticaco Erreglac Euscaraz adiraci, ta eracusten diezcar. Ala ez Escolan, ta ez Gramatican Euscara beñere utci bear oza.

Soldadu jaun onec arrazoi andia ecucan. Aldatequean disparateric bidegabeena da, Eusquera gazteac debecatu, ta madaricatu balego bezala castigatu, ta eragoztea. Escolan beitan eracatsi ordu onean, ta Erdaraz jardundezatela; baina guero libre, naiz Eusqueraz, naiz Gaztelaniaz: orrequin bietera eguingodira. Bestela Gaztelara gazteac badijutaz: an burla, ta lotia andien costuan badere, Erdaraz icasten dute: ta nola Eusquera quendu cieten, ta jarduten ezditen, beren Eri, edo Echeotara biurtecan, alde gucietara barregartiac oidira: ta eguiac esan oida: Gaztelania ez icasi, ta Eusquera bai aztu. Guero emen lotia andiaz dacuscuna: ez itzeguiteco, ta ez elcar aditzeco, Erdarazco, ta Euscarazco naspilla moldacaiz, eta nazcagarribat enzuncida. Bedei-

O Bedeica nic daquidan Maestra estimagari  
 errespito andico bat; bere gracia onarequin,  
 ta castigi gabe iustie inocentei, sei urtecoad  
 ere; Eusqueraz; Erdaraz; ta harinez ber-  
 din; chie trebetalun andiaz; ta ederqui lo-  
 tianic gabe iracurteq. eracastien diena. Ojala  
 on berz Maizta gortiac eguison balore; mu-  
 til mutur; botu niotel guchinago. Errietan  
 izango; litzaqite. Baña utsegnitean; oiei fo-  
 sagtz; ta gracia oncan; noli ondo iracur-  
 ti; edo esan beardaten; adiraci beazaiet; eta  
 ez bildur; ta icaragun; Oitu beardira; ez  
 emengo Izqueran bacarnic; ezpada edocen  
 Dialectotan; eta Francic; edo Nafarroaco;  
 edo Bizcaico. Libretan ondo; ta trebe ira-  
 curtera. Onetraco diran Erreglac ondo gor-  
 decen badira edocen Eusquera chitez be-  
 rad; suave; ta gozoa ertengoda; eta dea-  
 dai; izu; ta golpe gabe; ezpada onez egun  
 guchian ondo etanzan; ederqui ta nai beza-  
 la iracurtera gure chiquiac eta andiac eguin-  
 go dira. Au gauza ciertoa da.

## IV. §.

ONDO ESCRIBITCECO ERREGLAC.

O Ndo iracurteco; lengo ondo esenbi-  
 tu bearda; ta nola ondo esribitceac;  
 atco laguntzen duen ala gaizqui esribitceac;

B z

ondo

ondo iracurtea asco eragoztendu. Ta ondo  
 escriptura cer da ? ORTHOGRAPHIA,  
 Griegoz , ta Latinez ,, Recta scriptura , vel  
 ,, sciencia recte scribendi : zucen , edo bear  
 ,, bezala escriptura jaquindea ; dio Quinti-  
 lianoc. Lib. 1. cap. 7. ,, Juiciozco Maisu,  
 Jaincoaren celoa duenac erraz dacus , Euf-  
 queraren Gramaticac ceñ arrazoi andiaz nai,  
 ta escatcenduen , Escolamutillac baño Esco-  
 lamaisuae ori obeto jaquin bear dutela : bear  
 diran letraquin ondo escriptura Erreglac  
 berac obeto icasi , ta aurrai arretaz , edo  
 contuz eracusteco.

Ufadio charrai berneac ebaqui, efan oida!  
 ta alferricaco letra asco utci , ta itcez esaten,  
 edo aoz pronunciatcen dana garbiro escriptu-  
 tuaz , obeto , ta errazago acertatucoda: one-  
 rata oitu , ta eguin , ta gogotic equin , ta last-  
 ter , lau egunean orretara eguingocera. Ba-  
 ta ta bestea oiturac dacar : oiturac dacar er-  
 ratura. Ascoc ez beardan , ta itceguiten dan  
 guifa, ezpada buru gabe , ta nola nai escriptu-  
 rcen dute , ta argatic nequez , ta gaizqui ira-  
 curtenda. Gauza cierto ! ta eguia bera da,  
 juicioa duenarenzat , Eufqueraz escriptura,  
 ta iracurtea , Erdaraz , ta Latinez baño , al-  
 coz errazago dala. Eufquerac beste Lengoa-  
 geac baño Erregla guchiago, seguruago , ta  
 alcoz

ascoz etrazagoaz ditu. Eguia ait, nai bade-  
tu, laster arguio icusico dezu.

Latin, ta Griegoac ere, Ciceron, ta Quin-  
tilianoc diotenez, lenago tacha asco cituz-  
ten: guero Oarcari jaquinsu oien bien erre-  
glaquin gauza ascotan poliquiteuaz, beren era  
eder, edo primorean gueratu ciran. Baña  
nola? Ecin contatu alaco erregla, ta avisoa-  
quin. Bedeica gure Eufquera: bego deritza:  
cer du cer icusi. Onetan privilegiatua da:  
erregla guchi, baña seguruagoaquin con-  
tentuda.

A, B, C co Letretatic Maisu orien, ta San  
Agustin baten guisa, guc ere Eufqueran. asi  
bear degu. Munduan lendabico Letrac asma-  
tu edo, idoro cituztenac, CADMO, ta EVAN-  
DRO izandu omçen ciran. Latinean amalci  
letra jaquiñac ciran: guero besteac billatu, ta  
orañ bear dituenac baditu: Eufqueran oro-  
bat icustenda. Besteren batec, nic baño ofa-  
sun, ta lecu guciagorequin Eufquerazco gau-  
zac obeto moldatu artean, erraz ta ondo es-  
cribitceco urrengo Erregla oiec. zuc gorde  
itzatzi.

1. Erregla. A, e, i, o, u: bost letra oiei  
Vocalac derizte. Vocalac esan naidu, aoz  
bera esateco, beste letren bearric ezduena,  
eta bera bacarric berez esaten dana. Bost le-  
tra

22  
tra orien Eufquera hit alfo baliatcenda,  
2 en Erregla. A, B, C, edo Alfabetoco beste  
letrai Consonanteac derizte : elan naidu, ez  
beretz, edo bacarric, baicican Vocal aquin  
batean aoz elaten diranac,

3. Consonanteen artean batzuez Semiwo-  
calac, besteac Mutuac dira. Mutuac, edo  
aoz elateco ots guchi eguiten dutenac zor-  
tzi oietc dira : B, c, d, g, k, p, q, t, Semiwo-  
calac, edo aoz elateco Vocalen guifa diranac  
beste zortzi piet : F, l, m, n, r, s, x, z, Oietc  
aoz elaten dira : efe, ele, eme, ene, erre, efo,  
equiz, zeta.

4. S. Agustin en lenengo lecioada itz, edo  
dicioen ahieta, edo nola ahi bear diran, ta  
cer letraqun. Eufquera, Latiña bezala, le-  
tra guetmaz baliatcenda, ezpada K, R, eta  
X az.

5. R, edo r-az afitcendan itz, boz, edo  
verbaric ibarere Eufquerac berez ezdu, eta  
au Eufqueraren erregalix andia da, bada R,  
edo berca bere garratrafunagatic zacur le-  
tra elan aida. Eufquerazco Diccionario, edo  
itzen Vocabularioa eguingo baliz, letra R, r,  
pfo ra bicirarici bearco litzaque. R, r, eruari  
aoz elaten afitceco E, edo A anretic beti  
granfi-bear zaio; ala Arrazoa, Errosarioa, Er-  
reca, ta orrela afitcen dira beti.

6. K.



6. K. Letra onen, edo Gricgoen Kaparen bearric batere Eufquerac ezartaco ezdu: orren lezuan c, edo q, baditu: K letra onenquin Eufqueraz ezta or eſcibitu.

7. X, x. Equiz au Eufquerac berez inoizere bear eztu: ta ori ez ulatcea aurrenzat obeda: g, edo gea orren lezuan badegu: ta eſaten dan bezala eſcibitu bearda: Egemploa, Egercicioa, Egercitua, ta beſteac: Egſaminadorea, egſaminatu, naiz eſaminatu (batequin ondo eſaten, ta eſcibitcenda.

8. H, h. Achea letra dan, edo ez, Autoreen artean eztabaida andiac dira, Naiz letra, naiz aſpiracioa dala, edo beemenciaz ſoñu gogorra ematen duena, emen gure Eufqueran, ta Bizcaian, Ache ori aſſaricaco, edo ſervitcen ezduen gauza da. H ori izquetan batzuec Ge, beſteac Jota eguitendute. Guc orrelaco aſpiracio begemente, edo behementeric uſatcen ezdegu, Abraham eſateco, Abrahjan diote. Quen ortic: gure Eufquera ſuave eztizcoarenzat ſoñu ori ezta.

9. Cha, che, chi, cho, chu, Eufquerac chit aſcotan du: ta emenche, ta orretanche bai Achea ondo datorrela. Achaz, Achim, Ezechias, Joachim, ta Eſcritura ſagradoꝝ Hebreo en orrelaco Icenac ch orren ordean c, edo q, bacarraz eſcibitcea Eufqueraz au-

ren-



renzat obeata : Acáz, Aquin , ta Joaquin: ta  
Libru berrietan Joaquin dator.

10. Q, q. Onen berritic anciñacoac etzuten , ta qu ter zan etciequiten : ta guero etre nequez artu zan. Quintilianoc L. 12. c. 10. cion , qu efatean , beste letra , edo sylabac atzac , eta gogorrac biurtcen citala. Latinac u eransi cion , eta beré Erregla du : „ U fe- „ quitur post q semper, semperque liquefcit. Biz ordu onetan , eta gordebeza ; baña alaco u , edo letrafic ezipaliz bezala, beti jan, utci, ortu , edo defeguien bearda escribitcen dan u ori. Latinari Eufquerac garraitcendio onetan : ca , que , qui , co , cu , efaten dan bezala escribitcendu.

11. J, j. Jota Eufcararena ezta baicic Erdaratican , edo etorria. Eufcalerrietan len ia , ie , io , iu ufatcenzan : ta orañere Bizcaian ascotan elatenda : ian , iauna , monja , ta oz jan , jauna , monja : au eransi da.

12. U, u, vocala deritzana Eufquerac usatcendu ; baña V, v, latinez consonante deritzana berez guchi beardu. Eufquerazco itcetan ; orren lecuau B, b, efateco , ta escribitceco errazago , ta obeago du. A. Larramendic ondo dio , Eufquerazco itzac beren jatorrizco fuftraiean ez v, ezipada B, b, dutela : bat, baliante, becmente, bera, beraa , fuabea, go-

29

gobernatu, ta besteac. Ori bera Icengafieran,  
edo apellidoetan, Echabe, Echeberria, Men-  
dizabal, Zubimendi, Zabala, ta Cardabera  
bere Dicionarioan dacar, eta orrela besteac:  
gucia be arequin: eta aturrezat iracurten, ta  
escribitcen icasteco, Erregla au ascoc obe da.

13. N, n: ene fuerteari berez duen indarra  
quentceco Ensqerac du ña, ñe, ni, ño,  
ñu: Erdaraz Año, daño, dueño, Señor  
duen, ta dion bezala. Ascoc aurretici bat  
ufarcendu: baña i ori utci, ta orobat, edo  
berbera da: Baña, baño, beñ, gañean: Año,  
daño, dueño, Señor escribitcen ezta: bai-  
ña, baño, beñ, certaco? Obe da baña,  
baño, &c.

14. S, s, fuerteari bere indarra quentceco  
Erregla ori bera gorde bearda: Ensqerac  
ña, ñe, ñi duen bezala, aoz efateco, ta escri-  
bitceco du sa, se, si, so, su: eta onela x, edo  
equixaren bearric ezdu. Auge, orige, onela-  
ge, orrelage, Eleja, gajoa, ta beste onelacoas  
indarra quendu, ta errazago dira: Auce, ori-  
se, afea, Elefa, gasoa. Bizcaian onelaco ascoc  
da, emen ere bai. Oñatin *azeria*, edo *aiza-  
ria*, *aseria*, edo *asaria* diote, eta orrela escri-  
bitu bearda. T, t, fuerteari quin ori bera  
eguin diteque. Nafarroan, ta emen ere t  
suabeago eguiteco tt bi orobat escribitcen  
ditaz-

diruzte : *assa*, *gatto*, *deguisthor*, *dixtur*, *dirugy*,  
-*ora*, *ta*, *te*, *ti*, ambas da. *Tata*, aur bati efate-  
-*co*, *ta ta*, edo *tra*, *tra* suabeago elaten, edo  
-*eguitenda*.

15. Ele, edo *ll* biñaca indarra quenduz  
-*diccio*, edo itzen ardian ascotan ditugu, itzen  
-*afizan* : *llillur eta*, *llilluna*, edo *boguiac* illun-  
-*tcea* ; *lloba*, *ta llobaidea*, besteis ezdaquit,  
-*oredan*. Ensqetaren gauzaren barzuen ga-  
-*ñean* *A. Larramendi* bera ere eracusten di-  
-*quen gauza*, *ta* *erreglaren barzuez* conten-  
-*tu ez oida* : ala beñ baño gueiagotan berac  
-*efandit* : eta *Aita Manuel* batec au dionean,  
-*besteoc* cer *estago* degu ? *Aia* Provincian,  
-*nola* *Nafarroan*, *ta* ere gueiago *Bizcaian*, itz-  
-*eguiteco* ; edo *aoz* efatean, itz asco labur-  
-*teen dira*, bai *ta letra asco trucatu ere* : *b*, *d*,  
-*f*, *p*, *t*, *bata* bestearen lecuana : *ala besarua*, *peca-*  
-*tua*, *farrez*, *barrez* : *ifñi*, *ipiñi*, *ibefñi* : *oficio*,  
-*opicio* : *alferric*, *alperric* : *ezda*, *ozta* : *ezder*,  
-*ezter*, *oztezu*, *eztu*, *ta* *orrela* beste asco, *baña*  
-*jaquiñac*, *ta* *errazac*. *Ufo*, *ta* *costumbreac*  
-*gucia* eracustendu.

## V. §.

## ONDO ITZEGU ITECO BESTE ERREGLAC.

**E** Doceñ Lengoagetan itzeguiteco, aoz  
-*efan*, edo *pronunciatu*, *guztia* bat da:  
-*era*

eta aoz efatendā bezala eſcribiecea , eta eſcribitcendan bezala guoia iracurtea , erregalia andia da . Au beſte lzetundeac ezdute ; baña Eufquerac bai .

Letra biñacacoen gañean Erregla ſegurua : *ll* bi , ta *rr* bi , bere diccio , edo itzen erdiañ Eufquerac chit aſcotan ditu : ta gueiñean berez , onieci biac bacarric bai , ta beſte biñacaco letratic batere ezta . Latinac puntuag beñ , *bb* bi , *cc* bi , *dd* , *ff* , *gg* , *mm* , *nn* , *pp* , &c . biñaca ditu : *Abbas* , *accuſo* , *addo* , &c . Orobat Gaztelaniac : *Accion* , *leccion* , &c . Eufquerac naiz birequin , naiz batequin ; *Lecio* , edo *lecio* Erdaratic iracurteagatic eſaten , ta eſcribitcendu . Latinac ortetan bere erreglac baditu . Eufquera arriago , ta aſago dabill , ta eſandan abifoā bai , baña beſteen nequeric ta bearric ezta .

Itz , edo diccioren batzuetan , nola diran eſannai , eguinai , *janai* , *joannai* , *nn* bi , batean dirala dirndis , baña orrela eſcribitu arren , edo laſterca batean aoz eſan arren , biñaca itz batean ezdita , ezpada bitan , eſannai , eguinai , eta orrela beſteac .

Beſte erregla jaquiña : *b* , ta *p* , aren aurretic *m* , eſcribitu beardezu , ta ez *n* : *ala* , *ambat* , *cambat* : *amparōa* , *ampolla* , ta orrela beſteac eſan , ta eſcribitzarzu .

Alco-

Altofenzat nequea dirudi ; baña juicio  
 duenac nequeric batere eztu , esatendan be-  
 zala escribitcean : tza , tze , tzi , tzo , tzuf  
 tfa , tfe , tfi , tfo , tfu. Euscalduna bacera , ale-  
 ric bartu gabe , ta alatoric ezbaliz bezala , ne-  
 que gabe , zucitezguitean , or escribitudan  
 bezala , beti esatendezu. Aita Larramendic  
 arrazoiac , ta ederqui diona : tza , edo tfa ,  
 britten , t , eta z , edo t , eta f , , ori urren-  
 go bocalarenac dira , ta zuc aoz biciro es-  
 naz , edo t , eta z ; edo t , eta f , golpe batean  
 bezala , pronunciacio , edo esacra gracioso ,  
 edo sonu onecoa eguitenda.

Ta eguiac baki badu , beste Lenguageen  
 aldean , ori , ta orrelaco beste itzac escribi-  
 tcea , edo esatea , cer neque da ? Otza , bio-  
 tza , otfa , otfoa , edo stringo , strangulo ,  
 strictura , structura , edo orrelaco spectroac ,  
 esaten , errazago cen da ? Cembat errazago  
 da escribitcea , ta iracurtea : Atfa , aberatfa ,  
 atfoa , atseguina ; otfa , otfoa , urfa : artza ,  
 atzeguin , atzo , otza , artza , artzaia , utcia ,  
 ta beste onelacoac. Nola itzeguiten , ta ne-  
 que gabe esatendituzun , ala egun bian es-  
 cribitcera , ta iracurtera oric , eta orrelaco  
 aisa , ta nequeric aleric gabe , eguingocera ,  
 ta Erdaraz , edo Laniez baño errazago.  
 Apaiz alco chit erraz escribitcera nere con-

fejuz eguindira: zu guchiago, etcera, ta beari-  
 bada obligacio guchiago dezuz. Zure Jaungoico arequico dezun obligacio au ondo ezagutu, ta orri ondo erantzunai badiozu: aten onari, zure onari, ta Jaunaren vorondatea eguiteagatic, animafascoren provachuari, bear bezala beguiratunai badiozu: basteric bear ezta, ta basterie escatcen ezdizu, ezpada fede, ta gogo onari vorondatea pulca bat, eta egun guchiago neque ariñ bati: asitcea costaco zaitzu, ta bereala, orañdañoco mamu izugarri, ta eguiazco idutipenac escuaz bezala, quendu, ta alienatucodira. Orañ Eusqueraren Gramatica ederra icustora goacena.

LIBRO VI. DE LA GRAMATICA DE EUSQUERAREN ARTE, EDO GRAMATICA

**M**Unduac icusidien mirariandi, edo marabilla guztiz opetatic bat dudarie aletic gabe, Arte au da. Oñe, ez guizonen, ezpada Aingueruen beargia, cindien: eta orañ eguñic beguiz icusi, ta alere ecindate queana dirudi. Jaincoaren shilagtozco obra bezala da: ta Libru au, escueran inoiz ere artcen ezdet (ta ascotan arteen, ta iracurcendet, ta guchiago, ta obeto, abau, rainuque)

que Jaincoac ababatu gabe. Hor  
 rari milla esquet, ezen: Aita Larramendiri  
 berez quitozco beartiran argui andiac eman-  
 tiozcan, Gramaticac dituen bazter guciac  
 ondo barrenda, eta bere Arte: preciosoan  
 Eufaldunai aguerreco. Lan aundi onetan  
 ezguzon baten, espada ascoren burnigoi-  
 ta, edo auelleric sendocnac eten, tiratu,  
 ta deleguin ciezquean.  
 Oribabantz guciac gañeco, ta neque gu-  
 cien eraguiten, leozugarrien au ondo eza-  
 guteco, Gramaticaren parte, ta erregladi  
 guciac bertu ondo juquin bearda: eta Artea,  
 aluetan auzi orduco, utciac, ecer eguiten  
 eztegu: beñ ez ece, ascoran tofoguz, ta con-  
 ruz iracurri ta ere, barrendic ondo aditceac  
 lana, ta errua du. Añ neque andia da. Juicio-  
 an, pñica eguico, ta arazdiac sententia  
 emateco, gauza, edo causa lenago ondo icusi,  
 ondu, ta ezagutu bearda, ta orrentico, Jaincoac  
 pen arguac, i Basqueran, dan bezala, begu-  
 itatu, ta eguian leba. etnan Jaincoac artea  
 beñac arguiu, ta mutuac: eleanu dizala: gu-  
 riarrean ascoc ondo premia daucate. Besto-  
 la, Jauna alper da Maria maquillatu, &c. Euf-  
 alduin alper ajiheabei eñandaquichue: Af-  
 toaren aoraco: etia eztala, bñm bai belarra.  
 Gauza cietoa da, Gramaticac dituen zoi-  
 tci



rti partec, esimen ic aldarequean estuenaz,  
 Maifuen Maifuac bezala an ematen dituela  
 Zortzi parte oiee Latinez dira : „ Nomen,  
 „ Pronomen, Verbum, Participium, Prepo-  
 „ sitio, Adverbium, Interjectio, Coniunctio,  
 „ ta Euscatac orrela beste zortzi dira : „  
 Iccna, Oricena, edo Pronombrea, Verbo,  
 edo Eraquitza, Participio, edo Partarttea,  
 Preposicio ordean, Pospositioa du, edo Bei-  
 tenatea, Verboari darratzeana, edo Adver-  
 bioa, Interjecio, edo Ezattea, ta Coniunctio,  
 edo Ifatqinda, ceren parte bata bestearequin  
 lotutenduen.

Zortzi parte oiee bacoltza bere leuan  
 Arteac ederqui adierazteen ditur ondo ira-  
 curriaz, ta gogotie coñinaz, eriaz aditcen  
 dira. Oriec guciac nio, ta costumbrez ja-  
 quinac dira Euscaldunen artean, ta Arte ga-  
 be, edo berez. Latziac Cum preposicio, edo  
 aurretic dijoana bezala Eusquerac Quin pos-  
 posicio, edo ondorengo chit asco ufateen-  
 du. Orrén lecuac Bizcain dute Gaz. Erci-  
 la mutilbi beñ batean, Eusquetatén gastean,  
 beren ezra baidetan icusituen. Bata Bizcain-  
 rarra, ta beste Guipuzcoarra zan. Beren mo-  
 dara aserratu cirañ, ta ecm besteric equin, ta  
 deadarrari biac entancioen: Bizcainarrac dea-  
 dar: Quin, quin, quin; ta Guipuzcoarrac

Gaz,



Gaz, gaz, gaz : eta ondo aspertu giranean, bereala paqueac eguin cituzten.

Beste parteac, Verboaren aldean cericuzta, ezdute, Onen Conjugacioa, edo erabilerdea gucia bat da, ta berari dagozquion demporetan itzeguiteco banaça erabiltzea esan naidu. Orren girabuelta, ta era ascotaco aimbeste aldaera miragarriaz, iru dialectoetan, cer armoniazco musica gozoaz, ta escualdi ceñ cabalaz Verboac batetic bestera darabilen, ta jocatenduen icusi, edo enzuteac, zoradezaque Cristava : eta A. Larramendic onetan bere buruari, ta aleguin guciai gañez eraguintzeri. Conjugacio oiec isquilimia paregabea dira : eta Eufqueraren marabilla, ta nequea, standiteque, onetan dagoela.

Negue, pusca da I, ceren TZA, TZE, TZI, esateaz gañera, ascotan itz batean oriequin IZCA, IZQUI, ozca, ta orrelacoac arquitecendiran : *Efanguinizquitzen, eguinguñizquitzen, ta orieq bezala*. II. Itz batean Eufquerac ascotan lau gauza, edo persona bi, verboac, ta gauza etatenditu, ta chit luce eguitenda : *janiz anguinizquitzen*. Obeda baroizta apartatcea, ta escriptcea : *janizan, &c.* orrela iracurteco beguiac ezdira izutuço, III. Los, las, Erdaraz bezala Eufquerac eztu, ta ala Eufcaldunac ascotan utseguitendute : articulo

gicilo oriec Eufquerac Verboan daramaz-  
 qui. Erdararequin Eufquera ez aide , ta ez  
 bernaje da. Bere era, edo Gramaticaren par-  
 teac ufatceco moduan Latñaren antz gue-  
 iago du : ta icustendegu , Eufcaldun gazte  
 alcoc Gaztelaniaz baño lenago Latinez , ta  
 obeto icastendurela. Eufquerac neque oiec  
 beste Lengoageac berenac bezala baditu  
 ere , bere alivio , ta erregaliac ere baditu,

## VII. §.

EUSQUERAZCO GRAMATICAREN ER-  
 regaliac.

**C**Er dion ezdaquienac , naiduenac efan-  
 godu , baña juiciozco jaquinsuac du-  
 daric gabe , eguia ezagntu , ta aitortuodu.  
 Besteen aldean Eufquerac erregalia, ta priv-  
 legio andiac ditu. I. Genero , ta Preteritoen  
 nafpilla, edo ifcambillaric, besten guifa, Euf-  
 querac ezdu. Aimbeste erreglarequin gazte-  
 en buruac tormentatu , era gueroenean cer  
 provechu ? Beti quezca , ta beti arazoa : ta  
 betico egercicio ezpada , bereaia oriezaz az-  
 tu. II. Icen , edo Nominativoetan cer lanac  
 ezdira ? Latinac onela , Griegoac ala. Bedei-  
 ca gure Eufquera : bere fei catuetan erregla  
 jaquin , ta errazac beti bere onean firmecac  
 ditu.

C

III.

III. Oribera bere Gramaticaren beste parte gucietan seguru gordetendu : eta ay, Eufquera lasterrago , ta errazago icasi , ta ondo itzeguiteco bentaja andia dala, edo ceneccus. IV. Latinez Superlativoa, ta Eufqueraz Gucizco , edo Chitezco Iccena derizana guc era bitan degu. Bata itz batecoa, ta beste bicoa. Itz birequin eguitendanac adverbio oiecc : CHIT, CHITEZ, GÜZTIZ, edo GUCIZ, daramazqui : CHIT ona, chitez fantua, guztiz oderra, guciz galanta. Itz bateco Superlativoa , Iccena bacoizari En; bere ondoren eransiaz eguitenda. Onena, fantuena, ederrena, galantena. Jaungoico Onena Andiena , Deus O. M. Latina bezala, cfanditeque: baita Guizonen andiena, gucien gogorrena : gucietatic chiquiena : baita, gucien artean fantuena ere. Ederrissimo, galantissimo , ta onelacoric Eufquerac eztu.

Eguia da, A. Larramendic bere Dictionario, edo Izteguian Aldareco Sacramentu guciz santuagatic, Latinetic Santissimoa dacarrela : ta ufo ta costumbreac, Trinidadc Santissimoa , ta Ama Virgiana Santissima , Eufquera bezala eguinduela. Alere Sacramentu guciz fantua, ta Ama Virgiana chitez tanta añ ederqui da. Ama Virgiana, Eufcaldunac diونا , Jaincoaren Amaren Epithero , titulu, edo

edo ofantsi, ta alabanzaric ederren andiena da, ceren Jaincoaren Amac bai, ta bestec privilegio ori ezduen. Euscaldunac conturic eguin ezdute, ta ez arreteman, edo aplicatu, ecen Eufquetrac berez edo berafiazco Icen andigarri, edo Titulo edetrac, ta beren Icenai erantsi, ta chit egoquiró, Jaincoati, Ama Virginiari, ta fantuai ondo dagozquienac baditu. Ara nola.

Jaungoicoati, ta aren Atributo, edo Perfeccio esanezgarri, edo inefableai dagozquienac dira : „ Jaungoico guciz Ona, „ tu, Jaquinsu, Santu, Justu, Beficoa : guciz „ aberats, eder, gozo, ugari, liberal, Onguille, Emannai, Emallea : Aita maite, maitagarri, maiteitu, orricalsu, betaa, piadoso, amoroloa, &c. „

Jesu Cristori dagozquionac dira : „ Jesus „ gure Bide, Eguita, ta Bicitza, Ceruco Atea, gure Juan, ta Jabea : gure animen Artzai ona, gure Redentore, Salvadore, Birtateco, ta Maifua : gure Aitaric onena, „ Anai nagusi, Aide, ta Adilquide laztana : „ gure bideco Guida, Lagun, ta Capitan, edo „ Burua : Gracia gucien Jatorrizco Iturria, „ gure Biotzaren Bicitza, ta Biciaren Biotza, „ Graciazco Biciaren Anima, Animaren Espirituaren izan, ta substantia : Munduaren

„ Arguia, Justiciazco Eguzquia. Anima gata-  
 „ bien Eſpoſa maite, jaíncozco modura ena-  
 „ moratua : gure Oſaſun , ta Ondaſun guz-  
 „ tia , ta Gloria bicia. „

„ Salomon paquetsú , ta Paqueguillea,  
 „ Conſeju andico Ainguerua, Sacerdote an-  
 „ di, Pontifice , edo Aita Santu beticoa : Ai-  
 „ ta Eternoaren Ontaſunaren Antz , edo  
 „ Imagiña eguineguiña , aren Gloriaren  
 „ Edertaſuna , ta aren Subſtancia edo egui-  
 „ azco Izatearen ichura: Virtute gucien aſie-  
 „ ra , doai gucien Jarlecuia , Arri bicia , Ar-  
 „ gui ederra , Iturri ugaria , Ur gozo bicia,  
 „ ta jaquindea ematenduena : Arcantoi bie-  
 „ tatic bat eguinzuena. Bildots culpa gabea,  
 „ ta Arcume munduco culpac quentcen di-  
 „ tuena. „ Oiec , ta Eſcritura ſagradutic ate-  
 „ ratcen diran beſte onelaco Icen , ta Titulo  
 „ andi eder aſco dira : ta Eufcaldun-enzat gau-  
 „ za berria badirudite ere, Eleizaco , Doctrina-  
 „ co , ta Jaunaren, eta Santuen alabantzaraco,  
 „ Latiñez bezala , Eufqueraz baliatzeaz loſatu  
 „ bearezquera. Noizbait aſi bearda , ta beſte  
 „ Lengoageac beceñ arrazoi berdiñ , edo an-  
 „ dia, ta derecho jaquin eguiña degu guc, edo  
 „ Eufquerac.

Onela Ama Virgiñaren , Aingueru , ta  
 „ Santuen Icen , berai ederquien datozquia-  
 „ nac,

nac, Santuetan Janicoa bearbezala alabatco-  
co , atera , edo eguin beardira. Bidez emen  
Guraso , ta Mañuai erregutkendiet , beren  
eche ta errietatic deferritu , ta gaisoen itz-  
cuntzac onda ditzatela. ,, JESUS demonioa,  
ta onelaco beste itzcuntza , eta ezcontza in-  
fernuco itfufiac , Eufcaldun ondo acidiranan  
aoan ceñ gaizqui diruditen! Jaungoico Gui-  
zon eguiazco, gure Salvadoreac duen Icenic  
andien, adorararren , ta gozoena , ta S. Pa-  
bloc dion bezala, Icen gucien gañeco Icena;  
da JESUS, eta Espíritu Santuaren gracia ga-  
be, bearbezala, JESUS ecin efan, ezagutu, ta  
adoraditeque, ta ascoc maña gaisoa artu, ta  
orrela itzeguitean Jauna ofenditcendute.

Beste ascoc, guizon bat ecertaco , edo af-  
cotan gaia dala, edo agudo bat dala, efaerco,  
Gaztelaniatic artu, ta balentiaz bezala : Ori,  
edo urlia demonio bat da : diote. Jojou. Ah  
cer alabantza , etfairic andienaz bat eguiteal  
Eta onela izcuntza gaisoaz ascoc gala egui-  
tendute. Onelaco efaerac Cristau Eufcaldun-  
etatic aienatu beardira , ta Cristavari dago-  
quion juicioaz itzeguin bearda.

Substantivo, edo berez bacarric efatendan  
Icena, ta Adjetivo , edo beste Icenari eransi,  
ta darraiona dirade, ta usatcenditugu : Jaun-  
goico santu, andia : ta itzoro, Jaungoico di-  
vinoa

vino a esari bear ezda, teren Icen biac, bat esan naidaten. Substantivo berequico Icenac eranli, ta elcarrequin batean esatea, Eufque raren privilegioa da, orañurrensean A. Lar ramendic esancidan bezala. Ta ala : Zalbide, edo Zaldibidea, gurdibidea, oñ bidea esaren da : ta orobat : Cristaubide, Cristau fede, Cristau legue, Cristau dotrina, ta Cristau bicitza.

Diptongo, ta triptongoric Eufquerac bere itzac iracurte, edo eseribitcean ezta, ta errazago icasteco au ere erregalia da: Iru Dialectoetan syncope, edo itzac laburte chit asco ditu. Azquenic asenta dezagun, ondo itzeguiteco bear diran Gramaticaren parte guciac Eufscarac nafatco dituela, ta banaca gorabera, ta akdaera gucietan, berariazco Izquerac egoquein guciac, Legueric zorrotcen guztien damu gortian bada ere, ta beste Izquerac ez bezalaco neurri justu, ta simetria oguin oguinean, era gucietara ditu, ta Eufcaldunac daquizqui, ta darabiltzqui.

Ah baña, dio norbaitec: Eufquerac, naiagatic, Latiñ, edo Gaztelaniaren itzeguiteco elegancia, edo edertasun, ta Erretorica, edo Elocuenciaric berez ezta ! Ola, aditquidea, oriee ere baditugu? Ay guifagafoa ! Cer diozu ? Gaitzac eroguin aldizu ? Alafede, cer gaitz



Quitz andragoric; jaquin ez itfna bafio? Tgnorancia, edo jaquinez rriste onerati Eufcaaldun afco arquitcen dira; ta orrec gañez eragin, ta inuitfyan, cer dioten ere, ezdaquite. Ah donfua! Erretorica cer dan badaquizu? Non, edo cettan dagoen ezagutcen otedezu? Ara bada icufiezazu.

## VIII. §.

## EUSQUERAZCO ERRETORICA NOLA DAN.

**E**Rretorica cer da? „Ars, vel doctina bene dicendi: „ Quintilianoc lib. 2. c. 15. dionez, ondo itzeguiteco Arte; edo doctrina da. Erretoricaren Arte once ondo itzeguiten eracuffeco erregletan, bere eder garrri, edo itzaldiaren apaindurac, Tropo, ta Figurac deriztenac, ditu: oiec irzen aldaera, edo batetic beftera aldateco moduac dira? Tropoac, Autoreac diotenez, berez itcetan, ta Figurac gaucetan aldaera ori eguitendute; edo berenezco sentiduric befte batera mudatcen dira. Quintil. lib. 9. c. 1. Tropo edo aldaera, batzueran itz batean, Metaphora deritzana bezala, eguitenda: beftectan itz afcotan, edo itzaldi osoan, Allegoria deritzana bezala.

Figuraquin itzac mudatcea, Artearen erreglaquin, ta ederquiro beren lequan itzac  
ifin-



ifintzea da. L. 9. c. 1. Figura batzuec itzetan, besteac sentencietan dirade. Diran gucien contu banaca, ta chit ederqui Ciceronec ematendu : 3. de Orat. Eta au da Lengoage gucietaco Erretorica, ta onen erregla jaquin guciac Legue oietan sartcendira. Euscaldun alcoren jaquineztafin, edo errore istua chit andia da, ta ustedure, Erretorica, eta onen erreglac, ta armonia ederra Latiñarenzat baicic, edo Eufquerarenzat ezdirala.

Jaquizu bada, I. erregla orieci Eufqueran, beste Lenguage gucietan bezala dirala, ta gure Izqueran Tropo, ta Figura, diran guciac, an ederqui datozela, nola Latiñean, ta beste edocen Izcundetari : ta arrazoiaren arguia buruan duen guizonen Eufcarari au ecia ucatucodio. Jaquizu II. Artezco, edo erreglaquico Erretorica baño Izatezco, edo hacpitzac bere naturalezaco duen Erretorica lenago dala. Argatic Quintilianoc an arguizo elanzuen : „ L. 2. c. 17. Omnia, quae  
 „ Ars consummaverit, à Natura initia duxit.  
 „ Is. Arteac bere erreglaquin acabatcen duen gucia Naturalezatic, edo berezco izatezco asitcen dala. L. 3. c. 2. Initium dicendi dedit Natura, initium Artis Observatio.  
 „ Itzeguiteco asiera Naturalezac, Artearen asiera darac, edo observacioac emanzue-

48

„ la L. 2. c. 19. Natura etiam sine doctrina  
 „ multum valebit ; doctrina nulla sine natu-  
 „ ra esse poterit. Arte, edo dotrinac bere ga-  
 „ ia naturalezatic, edo berez bearduela; bes-  
 „ tela ecer balioco ezduela, edo ecer izan-  
 „ go ezdala. „

Arte gabeco, edo berezco Erretorica natu-  
 rala nola dan, obeto eracutifco dizute, es-  
 tudio, ta Escola gabeco Emacume bic : bat  
 Guipuzcoarra, bestea Bizcaitarra, ciñai con-  
 ta gracioto bi ciertuac, orañ elango ditudan  
 bezala, igaro citzaiten.

*Andre Donostiarraren Erretorica.*

Beste errecardari asco oi dabilizan bezala,  
 au batetic bestera bere gauzac saltcen, edo  
 tratuan cebillen. Erri batean, ala bearrez,  
 Galai gazte batequin topatuzan : eta icusi, ta  
 ezagutu zueneco, abegor chit gozo, ta aga-  
 sajo chit andiac eguiten aficizaion : Ay au  
 encontra! Ciña, ta bedeica : au Galai! Au  
 joia preciatua! Aulse bai gure Donostiaco fe-  
 mea degula ! Onela beste milla edertafun  
 Gazte orri efanciozcan.

Araco beren tratu gaucetara etorricira-  
 nean, orra non gure galaiac esqueñi charren  
 bat eguin, ta bear etzan moduren bat erre-  
 cardariani eracutí, ta biac aferraticiran : ta

[013

44  
 tortilla goitic berzirauli; ta andrearen belle-  
 tac ghirabuolta ariñ eman; ta Gazteatea  
 contra biurtu; besoac guerrian isñi; ta de-  
 faireguciaz etaten aficitzaion: Nere geride  
 onac, cer icusi bea otedegu? Cer eiqueñi  
 degu au, edo norc eguindigu? Oni beguiraz  
 an nongoa ote degu: Onen pachadari begui-  
 ra! Ea: quen orpoeticac, coartean bolteco  
 estampa: quen gure begueticac: ez gurl  
 beñzar orrelacoric. Au nor degu? Gu Espa-  
 ñol purupuruac. Au nongoa dan ezdaqui-  
 gu. Gure Aita, ta Ama Francesac ciran: ba-  
 ña gu Español garbiac, San Vicenteco Pon-  
 tean bateatuac. Gondeonac: au cer degu?  
 Quen ortic, Ay! au contua! Dearbuac icusi-  
 du golillarequin astoa.

Era onola beste gauza asco, edo ora ce-  
 tozquinac aufardiac andiarequin esan, eta  
 Galai ori losatue utci zuea: eta estudian-  
 tera bazan ere, bere Legueac eta Erretoricac  
 Andrearend ondaturciozcan; ta bereac, eta  
 gudiagoaditu, ta gueiagoren bildurrac isi-  
 llu igues eguin crazoeion.

Ande Elcristo darraren Erretoricac.

Au, ontcia bela berean bezala, bere ibi-  
 quiquin cebillen errespeto andico bat zan.  
 Eta ceren contuac, nore gustooz, ta berez-

co

erango. Enfoqueraren gracia andia duen, Bizcaitarra baninz bezala, aien guifa contatucodet.

Bizcaico Abade jaquitun batec bere llobabat Errico Echandera baten Seme bacarragaz ezcondu gura eben. Baia Andreac icufiric, Abadeac esquinteen eufan dotea bere Echaguniteati, eta onec cituban obligaciõnai erantzuteo adina ezala, al eguian moduric onencan escutadu iacan. Orregati bere Sacerdote iaun onec beti dote laburra opa eufan, guero, gueituteo uftez; eta adietan emon gura izan eban bere llobeac cituban aide aberatiac, eta acatice ufte cituban urrezcoimendiac, edo ondafinac, eta etorquizun onen errezcada. Iacohar chito edateo contadu eufan.

Echandera cindoac epe galantagaz guzria entzun, eta azquennari Sacerdoteari modu onetan efan eufan. Eta, Jauna, zure mefedeac Etorquizuna bazara? Ez, Andrea. Baquizu, Etorquizuna celangoa dan? Zurria, ala baltza dan? Ez, Andrea. Etorquizunagaz ian, edo edan bozu, edo beragaz biciazan bazara? Ez, Andrea. Bada, Jauna, Etorquizunen barri obagoric, eta segurubagoric ezpozu: Zu gueldizaita ceureagaz, eta ni bere banoa neureagaz. Eta orrembestegaz:

Aba-

Abade jaquitun ori, illi otza leguéz gogotu, ta mututuric Andreac ichi eban.

Orañ bada icenezco Eufcaldun, ta Iustancia gabeco aicez beteac, esadázute, nondic Donostiar, ta beste Bizcaitar onec Izcunde dontsu, eta Erretorica añ bici, ta egoquia icalizuten, edo norc eracatsicien? Ez egueiqui zuen burutic, edo zuen erreglaquin, baicican Jaincoaren doaiez, berenez, edo naturalalezaz. Lenago esandet, ta orañ berriz diot, Eufqueraz, Erdaraz, edo Latiñez itzeguitea, ta beardiran erreglaquin ondo itzeguitea, guztia bat ezdala. Orañdic urte bi ezda, au neronec, Soldadu batequin igarocirzadan eguiazco lance batean, gusto andiarequin icusinueta.

*Soldadu baten Izquierda preciosa.*

Nadañti Generalzarra, ta guerra bici oietan Prusianoaren perseguidore larza servituzuen chit doai oneco Soldadu bat topatunuen: bera Turkiaren ondocoa, ta Latiñez bere Izcundean bezala jarduten zuena; baña Latin bat añ graciosa, non da bera aditcea atseguin andi bat ematen cidan. Estudio ric zuen galdetu, ta etzuela, esancidan. Sacerdote, ascotan ta luzaro nerequin Latiñez itzeguitera oitu batéc, eta nic, gure erreglaquin

quin Latínez itzeguin , eta guztia aditcen cigun. Baña bera, estudio, eta erreglaric gabe, añ ascatu , añ trebe cegoen , non aditcera chit ondo ematenzan: puntuan beñ solecifimo , ta barbariím o galantac botatcen cituen, baña alacoric ezbaliz bezala, farra egujita eraguiten cigun.

Arguia iculten badezu badacutsu, Cristava, Soldadu arc Latínic Libruetan icafi erzucla, baña orregatic Latínez itzeguiten zuen. Ori arc bereztarra , edo jaiotzaco izquera zuen ; guc ez. Latin ura ecer costa gabe cequien, guc ez. Cer falta citzaion bada? Artea , edo onen erreglac. Gure Izarrizco arri nabar , edo jazpe ederraquin emen Loyolan guertatcen dana. Arri andi bat arrobotic badacarte. Maisu Iberoc erdi bi eguitea aguintcendu : Erretabloraco bearduen pulca bata , bere erreglac eman , ta berdinditcea , landutcea, ta leundu , edo bruñitcea aguintcendu , ta ispillu baten guifa chitezco ederra gueratcenda : beste pulca moldacaitza, landu, ta poliquitu gabe, bere artan gueratcenda, edo an darza.

Orra bada guizon asco nola diran. Guiciac gaiac dira , baña asco Izcunde eder , edo Elocuenciaren erreglaquin landu , ta bruñituac bezala : beste asco erregla gabe beti mol-

moldacáitzac gheratcendira. Guizón gai ori landu, ta leunduco bada, Maifuaren erreglaquin lan eguin, equin, ta equin bearda. Au edoceñ Lengoageran, icusten dan bezala, orobat da. Argatic Erretoricaren Artea Naturalezari laguntceco da : berezco Izeundeac bacoitzagan moldatceco, ta poliquitceco da : itzac noiz era onetan, noiz bestean, noiz estutu edo gúditu, noiz lasatu, edo zabaldu : noiz goratu, noiz beratu, noiz lutzatu, noiz laburtu eracusteco erreglac dirade. Eufquerac berez itzquera añ bici, añ gorzo, añ apañdu, ta edetrac, nola beste edoceñ Lengoagec ditu. Baña oriec ohdo daquizquiena nor da?

Orañ eun urte Apaiz bat Ernañin omerizan, bere ustez, Eufcaraz ondo cequièna: urte asco da Apaiz zar bati adituñola, anciñaco Apaiz ori aite banonz betea oi cegola, ta alabatcenzala, lau boz, edo itz oieo: **ATOMO**, **ECLIPSE**, **HOGUERA**, ta **HORIZONTE**; inore ere Eufqueraz eman go etciozcala. Aicezco arrotafuna. Apaiz orrec guchi cequien, ori baño ez bacquièn. A. Laxaméndic oriec, eta ascoz meago, ta gaitzagoac bere Diccionarioan ederqui dcartci. Laufoa, edo elada Atomoa: Argueá da Eclipse, edo arguigabca. Subarra, edo su-

suac eguitea da Hoguera: Marboilla da Horizonte.

Cembat: ere zan Apaiz ori, ez Latinez, ez Erdaraz Icen egoquiagoric Eufqueraz en oiec baño: Aidea, Gueidea, Idea, edo Quidea, ta Adisquidea, etcituen berac emango: eta era onetan, orien lagun, edo antceco asco diru Eufquerac.

Latiñac, Cognatus, Proximus, Coetaneus, Amicus, dio: Gaztelamiac, Parente, Proximo, Coetano, Amigo. Baña Eufquerac: Aidea, Guidea, Quidea, Adisquidea.

Emen bidez Asteco egunen Icenac, ta urteco ill bacoitzaren Icenac, Bizcaian, ta emen diran bezala, elan naiditut. Emen Gupuzcoan dira: Igandea, Astelena, Asteartea, Asteazquena, Osteguna, Ostirala, ta Larumbata. Bizcaian orren egoquiac ezdira: Domeca, Astelena, Martitzena, Eguaztena, Egubena, Egubacoitza, edo Baricoa, ta Zapatua.

Urteco Illen erdiac icen bana, besteac biña, ta ituna dute. Lenengoa da, Ill beltza: 2. Ostalla. 3. Marchoa, edo Martia. 4. Aprilla. 5. Maiatza, Ostaroa, Orrilla. 6. Garagarilla, Bagnila, Erearoa, 7. Uztailla, Garilla. 8. Agorrilla, Abustua, Aboftoa. 9. Burulla, Iralla, Agozta. 10. Urtia, Urtilla, Bildilla.



11. Azaroa , Acilla , Cemendilla. 12. Aben-  
dua , Lotacilla.

Urtearen lau Demborac dira : Uda berria,  
edo Eralora : 2a, Uda : 3a, Udazquena , edo  
Udatcena : 4a, Negua.

## IX. §.

## CRISTAU DQTRINAREN ERRETORICA.

**O**Nen gañean A. Larramendi aserrezco  
dago, eta arrazoi andiarequin Maisuac  
bezala, puntu bearren au eracustendu. Bere  
Iztegiaren aurrenean, edo Prologoan, Lecio  
jaquiñ , eta erregla errazac emancituen : eta  
oric ondo gordetcen badira, gure Eusquera  
chit beraa , suabe , ta gozoa e rtengoda. Euf-  
querac beste Lengoage ascoren aldean benta-  
ja andiac , ta esandiran privilegioac ditu , ta  
Gramatica justu, edo eguiñ eguiñaren, Ora-  
cio , edo Itzaldiaren zortci parteac chit eder-  
qui usatcen ditu , ta bacoitza bere lecuan zu-  
centceco erregla suguru, ta errazac ditu.

Orregatic añ laster, ta añ erraz Eutquera A.  
B. Recio batec icasizuen : ori bera guero A.  
M. la Portac, ta A. F. Beliciac, ta beste ascoc.  
Onetaraco, edo erraz, ta ondo icasteco , itz-  
eguiteco, ta escribitceco Eusquerari, besteñ  
aldean asco laguntcendio, besteac bezala, letra  
alco,

asco, edo itocenerdiac ez jatea, baicic Libruan dagoen bezala, gucia aoz efateac. Naspilla gabe, ta garbiago da onetan Eufquera: eta Izquerata obeto eguina, edo perfeccio gueiago duena ori da. Efan dan gucia Eufquerac orobar Jaungoicoaren gauza altu andietan, nola emen beco, edo bestelaco jaquinietan, bere erréglaquin, oforo ta ederqui gordetendu. Ta, ori da, ta ez besteric eguiazco Erretorica, edo eloquencia eguin eguina bera.

Gaberdi illun batean, ta arantzaz alde gucietatic beticaco bide batean bezala Eufcarrac, edo Eufcaldunac cebiltzan: ta A. Larramendi, berari bacarric cegoquion aufardi justuaz, beargai, edo irteciñ onetan sartuzan, Guizon baten ezece, ascoren diña zan eguirecoric gaitcen onetan, berariazco, ta berezquirozco Jaungoicoaren argui, ta doai gabe, Aita Manueli berari efan izan diodan bezala, ez berac, ta ez bestec ecin gauzonic eguingozuen. Alore bere edadearen lorean gucia bencitu, ta gucia eguin zuen.

Baña lan gogor onetan A. Manuelec artucituen neque latz, eta garratzac Gure Provincia guciz Noblearen gloriagatic bacarric itzan etciran: gorago, ta altuago beguiratcen zuten. Efan naidet, beñ ta berriz berac dion bezala, Jaungoicoaren onrari, ta anima onari

D

begui-

beguiratcen ciola , eta ori aren neque gucieli  
 azquen fiñ , eta coroa izanzala: Gure Jaincoa-  
 ren Lengoage bici bacar au animen salvacio  
 raco landu , ta poliquitcea : onetan bere ale-  
 guiniaz aleguindu , edo esmeratuzan , ta Jau-  
 naren Dotrina , ta Leguea bearbezala eracuf-  
 teco bide zucen segurua berac aguertu , ta ar-  
 quituzuen.

Ceruco Maisu , edo Jesu Cristo beraren  
 eguiteco jaincozcoa da ceruco bide , edo Do-  
 trina , Fedea , ta Leguea ezdaquitenai ondo  
 eracuftea : Jaungoicoa ezagutu , ta amatu de-  
 zaten arguia , ta escua ematea, Eguiazco , ta  
 ceruco Erretoricaren erregla ederraquin au  
 eguiteco , urrengo ayisoac Maisu Eufcaldu-  
 nac gorde bearditu. I. da.

*Nolaco erreverenciaz Dotrina artubeardan.*  
 Jaungoicoaren irza ondo icasteco , ta era-  
 casteco , efan , ta enzun bearda. Baña nola? Au  
 bear bezala ezagutu , pisatu , ta esaminateeco ,  
 ni fator itfua naiz , ta besteac nere lagunac:  
 ceruco urreguille , Lapidario , edo artisjaquin  
 linceagoa beardegu : Beste Agustín bat , edo  
 Maisuen Dotore , Dotoreen Maisu , ta Eleiza-  
 co ceruaren Eguzqui argui eder , munduco  
 Icasle gucién Eracasleric jaquinfuena : onec,  
 inorc ez bezalaco lecioac ematen dizquiñ , ta

Jain-

Jaincoaren Itzac cembat balioduen eracusten  
 digu. Ta S. Agustín batec cer dio?  
 Lecu batean Santuac dio. Jaincoaren Itza,  
 ta Doctrina ceruco arritic, ta perlaric precia-  
 tuenac, ta urrezco circilluac bezala dirala.  
 Hom. 26. ex 50. Beste sermoi batean Jaincoa-  
 ren Itza, ta Jesu Cristoren Gorputza balio, ta  
 estimacio berdin batecoac eguitenditu: ta ar-  
 gatic dio: „ QUANTA SOLICITUDE,  
 „ nola erreparo, ta errverencia aldan andie-  
 „ naz Jesu Cristoren Gorputza, comulgatce-  
 „ an artcen degun: TANTA SOLICITUDE,  
 „ NE OBSEVAMUS, ne Verbum Dei, quod  
 „ nobis erogatur: dum aliud, aut cogita-  
 „ mus, aut loquimur, de puro corde  
 „ deperiat: ala, ta neurri artan bertan Jain-  
 „ coaren Itza artu, enzun ta gorde beardegu-  
 „ la. Ta Cristoren Gorputza erreperò gabe  
 „ artcen duenac baño, Jaincoaren Itza arre-  
 „ gabe artcen duenac culpa guchiago ezduela.  
 II da: Doctrina eracusteco nola prestatu beardun.  
 Ala Bizcaian, nola emen celo andico Sa-  
 cerdote Jaun, ta animen Artzai Lécio au ondo  
 artcen duenac dirala badaquit. Oien beré Do-  
 ctrina, Itzaldí, edo Sennoiac Eusquerac escri-  
 bitcen dituzte. Alafede nequea da: baño ne-  
 que guciac amorioac venticendun: Itcez efan,  
 edo eracali naidutena, contuz onelz escribi-

acea , ascotizat chit etazco , conuenidan u-  
dea da. Bagoitzac bere erricoquin itzeguin oi  
duen bezala, bere erara lenago paperean ezar-  
ri, contuz echean, nai bezala, iracurri, ta gue-  
no Pulpituan errespeto andiagoaz , errazago,  
gogoticago , ta biciroago elangodu . . . . .

Gaztelaco Eleiza ascotan aguinduric dago,  
ta guizon jaquinluac ere Libru , edo Paperic  
Pulpitian esan ta Dotrina eracusten dute.  
Munduco esamelac on peratu , ta gure Euf-  
caldunac ere au eguitea obelitzaque : obeto  
milla bider esan , ta frutu guciago ateraco li-  
tzaque. Onela guciac berdin , ta guciac nequea  
arinduco litzaque. Oneta nic dacusdana, ta jui-  
ciozco persona aditu ascoc diona , da , Jetaf-  
en Biotceco Platica , edo Dotrinac chit eder-  
qui iracurteb, gust oz, ta devocioz enzuten di-  
rala. Gauza arguiago , ta obeagoric , oriet  
baño, Pulpituan esaten ezdala, ascoc senti du-  
te , ta esan oi dute. Ori guciac chit claro , ta  
contentuz aditcen dute: Lecioa eguitenduenac  
Paperetic errazagoiracurtendu. Paquez, ta so-  
seguz beti Dotrina, ta albait ere aferratu gabe,  
obeto aditu , ta biotcetari fartucoda ; eta ori  
Eufqueranic aldan jaquinien , ta claruenean.

Gure Fede , ta Legue santuac , ta Jaincoac  
naien dituen Dotrina gaiac , edo asuntoac, eta  
enzunlo , edo auditorioac bearren ditue-  
nac,

nae, dirade, gueiēna; Confesio; ta Comunio  
 gaizqui eguindacoen gañean : eta ori beardan  
 efamen concienziacoaren faltaz, edo lotfaz, ta  
 maliciaz pecatuac ez ondo elanaz, (edo peni-  
 tenciac ez cumplituaz, biotceco damu, ta are  
 alcoz gueiāgo eguiazco proposituaren faltaz,  
 nola pecatuen bidetic ez aldeguñaz; Confesio,  
 ta Comunio alco chit gaizqui eguiten diran.

Batzuetan, nola ondo confesatu, ta frutu  
 andiaz comulgatu beardan : nola Jaunari gra-  
 ciac eman, ta cer dēmbora artan escatu bear-  
 zaion : cer fede, errespeto, ta devocioaz Me-  
 zatan, Santísimoaren aurtean, ta Eleizetan  
 egon beardan. Besteetan, juramentu, birau,  
 ta maldicio, ecin icusi, aferre, gorroto, ta  
 etsaiari ez barcatu najaren gañean, edo gaitz  
 iriztez, edo deseozco pecatuen gañean: egem-  
 plo gaizto, edo beatztopa, ta escandalo, ta-  
 berniaco, jococo egoera luce, ta edaleen gri-  
 ña itfu, araguzco gusto itfusi, jolas, edo ibi-  
 llera torpe, itzqueta, edo deseogalduen ga-  
 ñean; eta baceitzari berea, oftu, edo gaizqui  
 quendu, edo artua, aldian pusca badere biur-  
 tceco obligacio estua, ta orretara bereala as-  
 tceco bideac.

Dotrinaren puntu chit bearrac dira, umeac  
 Jaincoaren bildur santuan acitceco legueac:  
 Guraso, ta familiaburuac oriee ondo zucen-

tceco

tecoo , eta undeen Guraso aquico amorio,  
 obediencia, ta errespetoaren obligacioac: Do-  
 trina icasi , ta eracustea , confelatcera bialtcea,  
 lagun onaquin ibilli , ta goiz echeratcea, eche-  
 co paquea , ta elcar ondo artu , ta icustea: be-  
 re , ta ehecoen estura , gaitz ; edo nequac pa-  
 cienciaz , ta Jaincoaren icenean ondo erama-  
 tea : nola orietan Jaunaren erregalo , ta go-  
 rañtci gozoetan bezala,aren borondatea egui-  
 tea, Jesus onaren ceruraco bide erreal segurua  
 dan : nola gure dicha gucia , gure borondate  
 ucatu, autli , ta ez ori , ezpada Jaincoarena  
 eguitean dagoen : bacoitzac bere estadu , ta  
 bicimoduco gurutce, ta carga amorez eguio-  
 ro artu , ta Cristori gogotic jarraicean dagoen.  
 Eta au Jesus beraren Dotrina , egunoro bear-  
 ren deguna , ta egunoro eracatsi, ta predicatu  
 bear litzaquena da.

Onetaco gai guciz jaincozcoa da , S. Juan  
 dicipulo amatuac egunoro , ta beti aoan , ta  
 biotcean cecarren Dotrina : Jaincoaren ume-  
 ac , elcar amaezazute : nola caridade onezaz  
 Legue santu gucia cumpliten dan , ta Jain-  
 coaren alaba estimatuen , ta maiteena nola  
 Gueide , edo Progimoaren amorio au dan:  
 zuretzat naidezun guztia zure progimoari zue  
 eguitea : ta zuretzat , edo zuri inorc eguitea  
 nai ezdezuna ; zure gueideari ecertan zue ez  
 egui-

**eguitea** : nola Jaincoac emandizun neurri , ta erregla bacar justuena dan. Zure lagun urcoarenzat zuc beti biotz beraa iduquitcea , ta animaraco , ta gurputzeraco aldezia on gucia ari eguitea , Jaincoaren ceñ marca ederra dan, ta Jaincoaren Biotzaren antcecoa nola zurea ortic eguitendan.

Azquenic , nola Misericordiazco obra , limosna , ta besteac pobreai Jaincoaren icenean , edo amorez eguitea , ceruraco ondafun andiac biribillatcea , ta Jesus-en Biotcean gorde-tcea dan : eta bere Evangelioan dion bezala , azquen juicioco egunean , Misericordiazco obra oietatic , bear bezala eguin , edo ez eguinetic , onai , ta gaiztoai , ceruco , edo infernuco sententia Cristoc nola emangodien. Orduan gucienzaco Juezaren pagabide , edo Arancel berdin justua , Misericordia izangoda.

Gucien Erregue , ta Juez justu oni nai daquiola , Gure Provincia Guçiz Noble onen buruac bere antcera eguin , ta Misericordiaren balioa ondo ezagutceco bere arguiac zucendu , ta Erri jaquinenetan animen oneraco , onelaco Misericordiazco Eche onac jatocera animatcea. Oietan pobren gorputzetaco alivio icusten danac ezdu cer icusi aien animetan eguiten dan onarequin. Milla bider oietaco misericordiazco obra espirital andiac , cor-poralac baño guciago balio dute. Ah,



Ah ; Jaun prestatuac ! Misericordia naidet , ta ez sacrificioa , dio gucien Jabeac , ta Juezac . Misericordiaz en esque dabil Cristo , ta ez bereztat , baicit zuenzat . Matth. 12. Ah ta cembat . anima galdu Misericordiaz irabaztendiran ! Orregatic pobreac zuen artean beti , Cristoc dionez izangodituzute . Erribesteçoi beren libertade esquecoa quenduco erzaie . Baña orien artean cembat dabilta , ta norc daqui nola , ta cer leguetan ? Ez dotrinatic daquiten , ez ezconduac , ala bestelacoac diran , non , da noiz confesatcendiran : Errico , ta Eleizaco buruen quezca , ta oriequin ecin buruatuas ceren batetic bestera iguelca dabilzan . Ta cembat Sacramentu , ta confesio gabe , gaizqui bide orietan illic topatcen dira ?

Neque pusca da Errietan orretaraco bide seguruac , edo errentac arquiteca . Alere Misericordiac gucia berdintcendu . Erri ascotan orañ eguitendan limosnaz , cierto da , pobreasco bici dirala . O Jaunac ! Eta cembat ceruco bendicio ugari , eder , andiac pobrean oracioratic zuen animetan , eche , ta errietan icusico diran !

Eta ona non Doctrina gai , edo asuntoric bearrenac esan ditugun : eta Espiritu Santuac , Trentoco Concilioan nai dituen gaiac , gaitceticignes eguin , ta onari jarraitceco , oietara

da.

37

datoz. Sef. 5. c. 2. Orien berri ematea Igan-  
 de , ta Jai andietan : ,, Diebus saltem Domi-  
 ,, nicis, & Festis solemnibus ... cum brevitare,  
 ,, & facilitate, &c. ,, alcotan , ta laburcho , ta  
 erraz aditucodan izqueran , naidu. Noizean  
 beñ Egemplocho bat contatcea, urrezco ilte-  
 batequin bezala , Doctrina gure Eufcaldunen  
 biotcetan jositcea da. Pecatuén contra aferre-  
 alditen bat inoiz bear badere , baña gucia  
 peccarién amorez , gucia paquez , paciéncia,  
 ta espirituco suavidadez beteric , San Pabloc  
 dionez : ,, Argue, obsecra, increpa in omni  
 ,, patientia, & doctrina. 2. Tim. 4. Instruite  
 in spiritu lenitatis. Gen. 6. ,,

Confesore , ta Predicadore Jaunac , Mai-  
 suac bezala , beguien aurtean iduquitcea nai-  
 nuque , gure gendecho onac , aguitz gucie-  
 nean , virtuteén edertasun , ta amorez , peccatuen  
 irsustasun , ta gorrotoaz baño , Jaincoaga-  
 gana eracartea , obe dala. Lenengo bidea se-  
 guruago , ta prestuago baicic ezta : ta virtu-  
 teai jarraituaz , obeto , ta errazago orien  
 contraco peccatuetatic igues eguitenda : bide  
 onetatic lasterrago , ta frutu guciago anima  
 onetan eguingodute.

Jaincoaren Doctrina beardan fede , ta devo-  
 cioaz efateco , lenagotic ondo pensatu , be-  
 guiratu , icusi , ta icasi bearda : era ori , Latin,  
 edo

edo Gaztelaniatic munduan ez baliz bezala. Au eguitenduen Eufcaldunac, nere contu, Dotrina ondo esribitu, icasi, esan, ta adiera-zocoduela. Latin, edo Gaztelaniatic Eufquerara:biurtu nai bada, ori ondo biurtceco, edo traducio onaren legueac gorde beardira:eta ez itzac berac, ezpada oriec esan nai dutena, edo oriententidua ondo pisatu, ta Eufqueraz nola ondo esangodan contuz consideratu, ta ori esribitu bearda.

Beste izquerac bezala, gureac ere bere itzaldi egoqui, chit biciac, berezco, ta berariazco ederrac ditu. Baña Erdarac era batera, ta Eufquerac bestera. Oñec era postpositivo, ta arc prepositivoan. Esan naidu: Gaztelaniac beti aurretic dacarrena, Eufquerac azqueneronz beti botatcenduela: eta itzac beren lecuan, Gaztelaniaren contra ifintce orretan Eufqueraren era eder, aire, edo chiste gucia dago. Bestela, itzez itz Erdaratic Eufcarara biurtcen badezu, chit insusi, doacabe, edo moldacaitz itzengoda, eta mutillac esan oidutena: „ conmer aviamos echo nosotros: bien que está, „ Padre, era: á ti la lengua que no te faque „ pues. Itzez itz biurtcea orra cer dan. Eta edoceñ Lengoagetan orobat da.

Lenago ondo prestatu, ta ere Jaincoaren Itz santua beardan errespetoaz artcean; lana dago

dago. Ciceron tristea, surretco onragatic, bere Erretorica guciaz, ceñ ere zan, ta lenago aleguin guciaz prestaturic ceñ ere cegoen, alere, Erromaco Jaunen aurrean itzaldia asitceco, urseguiteco bildurac beti, berac dionez, artcenzuen. Jaungoicoaren Legue, ta Dotrina, Ciceron en eguitecoen aldean, ceñ gauza mea,preciatu, ta andia dan, edo ceñec dacus, Latin usia pulca bat duen guizon juiciozcoric nor da, Erdaraz, edo Eufqueraz Setmoi bat iracurri, ta beste gabe, Latiñez Pulpituan predicatucoduenic? Irzoro galdu, ta trabatucolitzaque. Bada Eufquerazco Erretorica berbera da, ta erregla, ta legue berdiñac dira. Provechoai eracasi bear zaien Jainaren Dotrina, ez vanoari, ezpada veneracoguciaz artceco gauza da.

### III. *Dotrina galdececo, ta esateco modua.*

Dotrinaen puntucho oiec esribitcen nagocla, ill berri triste bat etorri da, edo Sacerdote J. D. Ignacio Iturbe, igaro dan egunen nola ustegabe, ta barbatetan ill otza guelditudan: Jaincoac bere glorian duela. Onec, Villa errealco Vicario zala, Jai egun gucietan Dotrina eguin, edo esplicatu oizuen, tachit atseguin andiaz ascotan aditu izan nuen. Onen jarduera santu, edo egercicioa eragucic-

80

cietara ederra , ta erraza ean , eta onela egu-  
tenzuen.

Eleizan ceuden guciac berarequin batean,  
belaunico jarrri , foleguz boz altuan ciñatu,  
Contricioco actua eguin , ta enzunleac efer-  
tzen ciran : era onetan bera Pulpituan zutic  
cegoela , Escolan bezala , ta Paperetic , Carti-  
llaco Oracioac , berac claru efan , ta tonu ar-  
tan efanaz , guciac eranzun , edo efatzen cituz-  
ten : Aita G. Ave M. Salvea , Credo , ta Artic-  
uloac , Legueco , ta Eleizaco Mandamentu,  
Sacramentu , ta Misericordiazco obrac. Cer-  
jarduera , edo Practica ederrago , ta bearrago-  
ric oriec gucioc , ta contriciozco actua eguitea  
bañb ? Orrequin lotfa , ta bildur gabe guciac  
berdin : chiqui , ta andi , gazte , ta zar , guizon ;  
ta andreac , betico efanaz , erdi lotan baceu-  
den ere , nai , ta nai ez bezala , gucia ondo  
ciequitén .

Egercicio eder onen ondoren , Dotrinaren  
puntu berariazco bat berac azaltzen , edo efi-  
plicatzen zuen : ez luce , ta ez labur , bere neur-  
ri onean ; baña bere eufquera claru , egoqui,  
ta errico ai acomodatu , ta cegoquienean : texto  
edo latiniac batere gabe , aferre , edo inquietar-  
cioric aleric gabe . Ala auditorio gucia , aoc  
chabalic , chit gustoz , ta devocioz egon oi-  
zan . Au berau eguiten duten beste Arzai onac  
ba-

badira. Ojala guciac berdin onela beren Elei-  
tezeran eguiten badute. Oriec jaquinde, edo es-  
tudio andiric ez iduqui arren, maravilla aun-  
diac orien Paperetic icalico liraque.

#### IV, *Dotrina galdeteca modua.*

Espiritu Santu, egun onetan etorrizana gure  
te biotzac emen arguitu, ta bere amorez zu-  
cenditzala. Puntu onetan, nola Eulcal errie-  
tan era, edo manera jaquinic, ta gucienczar  
berdiñic, orañ artean izan eztan, egoquiro  
itzeguitea erraz ezta. Gure itzaldi, ta izquera  
gucienetan utseguitendogu: ta orañgoa ezta.  
S. Agustín batec cion: „ Multa improprie lo-  
quimur, pauca proprie; intelligitur tamen,  
quid velimus. „ Efan naida, gauza asco ez-  
egoquiro, ta guchi egoquiro, ondo ta beat  
bezala, esaten dirugula: alere elcar, edo cer  
efan naidegun adircen degula. Jaquintafun be-  
re pareric munduan icusi etzuenac, edo Agus-  
tín batec añ umilquiro, ta ederquiro au badio,  
besteoc cer esan dezaquegu?

Animen cargudun, edo Dotrinaco Elami-  
nadoreai lastima andia diet: eta gure gende ja-  
quinez gassoquin paciencia zabala bearda, eta  
au baño ere prudencia andiangoa naida, pobre-  
choai chir beren erara galdetu, ta badere, be-  
arren dan Dotrina ondo adircen duten, icuste-

co,

co, edo daquitena nolerebait ateratceco. On-  
docho bada, ta suabero artu, ta gauzaric er-  
razen, ta jaquiñen etatic galdetcen asi bearda:  
orrela animatu, ta lasterrago, ta zucenago,  
icali dutena eranzungo, edo esangodute.

Bestela gogorqui, estu, edo chotrotz egui  
arren badira, lotfatu, bildurtu, ta ebaquico dira  
ta gauzonic eguingo ezdute. Cicquiten Dotri-  
na pufca bera ere, nastu, ta oquer, edo gaizqui  
esango dute: ta beardana daquitena, edo ez,  
orduan, ta orrela Esaminadoreac jaucioric ecin  
eguin dezaque. Escusatu, bada, arren, jaunac,  
ta gucienean alde batera, gende itsu gaffoi  
ondo ezdatozquien galde, edo preguntac ut-  
gi seguru ezdaquizquite, ta orien premia, edo  
laguin bearric ezdute. Emen erabatera guciai  
Dotrina galdetceco Erregla laburcho bat, edo  
Egemplora falta da.

Cura Jaun gucienean biotzac Espiritu Santuac  
arguitu, berotu, ta guiatu ditzala, boren egem-  
plo, ta dotrinaquin anima asco salbatceco.  
Amen.

Onen ondoren Liburcho bi laster ateraco  
dira: Bata: „ A. S. Ignacio ren Egercicio ea-  
gañean Afectoac, boren Egemplo, ta Do-  
trinaquin.

Bestea: „ Ondo itcen icasteco, ta ondo il-  
tzen laguntceco. Egercicioaca.

Azquenic, Jaincoac nai badu, A. Astere  
 ren Dotrina Cristiana, edo Cristau Dotrina,  
 gure Eufquera garbian; baña emen ufatcen-  
 dan izqueraric jaquinenean: uste, ta aleguin-  
 guciaz ondo imaturic, eta Provinciaco, ta  
 Bizcaico gure Eufcaldun onenac, ta Theolo-  
 giaco Maisu ascoc, urrezco Librucho oni da-  
 goquion estimacioac, chit ondo, ta contuz  
 icusi; ta beguiraturic.

Aita MENDIBURU ren zelo andiac Na-  
 farroaco erara Libru eder provechuzco asco  
 atera dituen bezala, Jaincoaren Ontasunari  
 escatcen diot, Bizcaico biotz noble ren bati,  
 ango era, ta Dialectoan, ceruco Dotrina, ta  
 Egemploen Libruac ateratceco, arren argui  
 celoz, ta gogoz bete bat emandiozala. Alper  
 alperrie leiatcea da: animen oneraco, Bizcai-  
 co, Nafarroaco, ta Guipuzcoaco iru Dialec-  
 to etan elcribitcea, guztiz premiazco, ta gau-  
 za chit bearra da. Gure Izquera, beste bien er-  
 dicoa bezala, Nafarroan, baita Bizcaian ere  
 gueiena aditcenda. Baña ez Nafarrac Bizcai-  
 coa, ta ez Bizcaitarrac Nafarrana aditcen dute:  
 ta bata besteagandie urruti, ta bacoitza bere  
 bidetic dabill. Jaincoac guciac zucenditzala  
 bere gloriaraco. Amen.

























